

Gazteon arima higatzen duten bakardadeaz, komunikatzeko gaitasunik ezaz eta langabeziaz dihardu Olimpo antzezlanak.  Kajoi Eszena proiektuaren estreinako ikuskizunak, umorearen bitartez, gazteen errealitate gordina islatzea du xede.

Aldamioan gatibatutako bizipenak



Asier Sota eta Xabier Riezu antzezleak.

iñaki lazcano

Kajoi Eszena Donostian, udako komedien supazterrean, sortutako kultur ekimena da. Muina antzerkia da, baina beste kultur esparruak ere uztartzen ditu dakarren proposamen berritzailean. Hala, euren ideiak eta sentimenduak oholtzara eramateko gogo biziz dauden antzezle gazteez gain, musikariak, eszenografoak, argiztazileak eta irudiaren munduko artistak ere topa daitezke bertan. *Olimpo* ikuskizuna da Kajoi Eszenaren lehenengo uzta. Iragan hilean aurkeztu zen estreinakoz, Errenterriako Niessen aretoan, eta Euskal Herriko bazter guztietara iritsiko da aurki.

Aldamio batean bakartutako hiru gazteren bizipenak dakartzan *Olimpo* antzezlanak. Aldi Baterako Laneko Enpresako bulegoan kontatu dituen gezurrek aldamiio garai batean lan egitera bultzatu dute Uxue. Zhirnovsky etorkin serbiarra —Txindoki ezizenekoa— eta Gorka lotsatia izango ditu lagun bere eguneroko zereginetan. Altuerak sortzen dion beldurrari ez ezik, emakumeekin oso ondo konpontzen ez diren lankideei ere aurre egin beharko die Uxuek. Neskek berobero jartzen dute Txindoki, eta ezin



Fitxa Teknikoa

Antzezlanak: Olimpo.
Konpainia: Kajoi Eszena.
Antzezleak: Dorleta Urretabizkaia (Uxue), Asier Sota (Gorka) eta Xabier Riezu (Txindoki).
Zuzendaria: Jon Sarasti.
Egileak: Jon Sarasti eta Xabier Riezu.
Argiztapena: Patxi Ariztimuño.
Jantziak: Luis M. Del Olmo.
Eszenografia: Imanol Juanes.
Musika: Pello Irizar.
Ekizlea: Marijo Stefania.
Telefonoa: 636 24 77 99.

«Komedien esparruko adierazpen artistikorik aberatsenek tragedia dakarte errailetan»

dio eutsi bere gonazale-tasunari. Gorka, berriz, urduri ipintzen da emakumezkoen aurrean, eta ez da bere sentimenduak adierazteko gai.

Entseguetan sortutako ideiak oinarri hartuta idatzi dute *Olimpo* antzezlanak Xabier Riezu antzezleak eta Jon Sarasti zuzendariak. Lan arazoak, bakardadea eta komunikatzeko gaitasunik eza islatzen ditu obrak hein handi, batean. Xabier Riezu obraren inguruan mintzatu zaigu: «*Olimpo* antzezlanak, berez, oinarri tipikoa duela esan liteke. Dena den, ez genuen hutsalkeria erortzerik nahi. Beraz, antzezlanak oso ezberdin diren hiru pertsonaren sentimenduak aztertzen ditu. Aldamioko bakartasunak, muturreko egoera horrek, pertsonaia guztien arteko harremanen berri dakarkigu. Adiskidetasuna proban jarriko da, eta harremanak benetakoak edo gezurrezkoak diren jakingo

dugu. Aldamioan jazotzen diren bizipen horien itzalean langabezia, komunikaziorik eza eta bakardadea daude».

Bakardadea eta maitasuna

Antzezlanean bakardadearen gaiak ezinbesteko garrantzia duela us-te du Xabier Riezu. «Bakardadea oso esanguratsua da, hiru pertsonaia

asmoz egingo dituen saioak antzu bezain barregarri gertatuko dira. Etsipenak zintzotasunez hitz egitera bultzatuko du Gorka lotsatia, eta horrek soil-soilik zabalduko dizkio maitasunaren ateak. Asier Sotaren aburuz, baina, obraren bihotza ez da maitasuna. «Maitasun istorio bat dagoen arren, antzezlanaren ardatz nagusia ez da maitasuna, *Olimpo* ez baita maitasun istorio bat».

Komediaz hornituriko tragedia

Olimpo antzezlanak egungo gazte jendearen arazoak errealismo handiz islatzen baditu ere, komedia bat da. Umorez ehundutako obra bat da. Tragediaz zartatutako komedien eredura atonduta dagoela diosku Xabier Riezu: «Komedia on ororen itzalean tragedia egon ohi da. Hutsalkeria oinarri duten komedia arinak ere beharrezkoak diren arren, komediaren alorreko adierazpen artistikorik aberatsenek tragedia dakarte errailetan. Barre kontzientea. Mezu serioa iradokitzen duen komedia bat da *Olimpo*. Hala ere, ez da panfleto huts bat, inolaz ere ez. Gazteon errealitate gogorra erakusten duen komedia bat baizik. Dena dela, obra ikustean negar egiten duenik ere badago, une batzuetan tragedia guztiz gailentzen baitzaio komediari».

Gazteak antzerkira hurbiltzen ez badira, antzerkia gazteengana hurbildu beharra dago. Hots, gazteak obra erakargarriekin erakarri. *Olimpo* gazteek gazteentzat egindako obra da. Gazteon arazoak umorez islatzen duen obra berritzailea. Antzezlanak eta bestelako adierazpen artistikoak uztartzea xede duen egitasmo interesgarri baten lehen urratsa. Barrea eta hausnarketa nahasten dituen antzerkia atsegin dutenentzat, aukera aproposa oso.



ANTZERHIA

Viaje a través del teatro.

■ (Talia). Bihar, Gernikako Gernika Zinemak, 20:30etan.

La frigidéz como manifestación explosiva de la ninfomanía.

(Belladonna). Bihar, Elorrioko Arriola kultur aretoan, 23:30etan.

Txio Txioa.

■ (Taun Taun). Bihar, Lasarteko Manuel Lekuona kultur etxean, 18:00etan. Igandean, Basauriko Social Antzokian, 12:00etan.

Kartoibiraka.

(Markelñe). Bihar, Legazpiko Latxartegi aretoan, 17:00etan.

Kukubel.

■ (Kukubiltxo). Bihar, Balmasedako Ateneoan, 17:00etan.

Sukaldea.

■ (Errail). Bihar, Zaldibiko Antzokian, 22:00etan.

Ezin lorik hartu.

(Txamuskina). Igandean, Bilboko Kafe Antzokian, 17:00etan eta 18:30etan.



La venganza de Don Mendo.

■ (Tricicle). Gaur, Bilboko Ayala antzokian, 20:00etan.

DANTZA

Le Cid/Le Carillon.

(Miarritzeko Balleta-CCN). Larunbatean eta igandean, Miarritzeko Gare du Midin, 17:00etan.

ZINEMA

Yaaba.

■ (Zuz: Idrissa Quedraogo). Gaur, Elorrioko Arriola kultur aretoan, 20:15etan.

Hurricane Streets.

■ (Zuz: Morgan J. Freeman). Bihar, Getxo Antzokian, 22:00etan.

El amante del amor.

■ (Zuz: François Truffaut). Astelehenean, Donostiako Arrasate Kaleko Kutxa aretoan, 19:30etan.

La lengua de las mariposas.

■ (Zuz: Jose Luis Cuerda). Asteazkenean, Barakaldo Antzokian, 20:00etan.